# DÉCLARATION D'INTENTION DE COOPÉRATION EN MATIÈRE LINGUISTIQUE ENTRE LE SECRÉTARIAT À LA POLITIQUE LINGUISTIQUE DU GOUVERNEMENT DU QUÉBEC ET LE SOUS-MINISTÈRE DE LA POLITIQUE LINGUISTIQUE DU GOUVERNEMENT BASQUE

Adoptée à l'issue des rencontres tenues au Québec et au Pays Basque entre février 1998 et décembre 1999

entre

le sous-ministre associé à la politique linguistique, monsieur Jean-Claude Corbeil

et

la sous-ministre de la politique linguistique, madame Josune Ariztondo Akarregi

Certaines collaborations en matière linguistique entre le Québec et le Pays Basque se sont développées au fil des années par la participation d'experts de part et d'autre à diverses rencontres de spécialistes.

Lors de leurs rencontres, M. Corbeil et Mme Ariztondo ont souligné la forte identité culturelle du Québec et du Pays Basque qui se développe dans un environnement où dominent de grands ensembles linguistiques et culturels et ont noté l'importance de travailler à renforcer la vitalité de leur langue respective en partageant leurs expériences.

# QUEBECEKO GOBERNUAREN HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAREN HITZARMENA, HIZKUNTZA-GAIETAN LANKIDETZAN JARDUTEKO

Jean-Claude Corbeil jaunak, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak

eta

Josune Ariztondo andreak, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak,

1998ko otsailetik 1999ko abendu bitartean, Quebecen eta Euskal Herrian izandako elkarrizketetan adostutakoa.

Urteetan zehar, hizkuntza-gaiak aztertu eta garatzeko hainbat mintegi eta lankidetza-ekimen egin dira Quebeceko eta Euskal Herriko adituen zein ikerlarien artean.

Elkarrizketa horietan, Corbeil jaunak eta Ariztondo andreak azpimarragarritzat jo dute beste hizkuntza eta kultura handiak nagusi diren inguramenean garatzen ari den Quebecen eta Euskal Herriaren kultur nortasun berezia eta, euren esperientziak elkartrukatuz, nork bere hizkuntzaren bizitasuna indartu beharra ikusi dute.

Ils ont exprimé le souhait de la mise en œuvre d'une coopération en matière linguistique dans cinq domaines spécifiques:

- La toponymie.
- La normalisation de la langue de travail dans les entreprises.
- L'analyse comparative de l'aménagement linguistique.
- La terminologie.
- La formation linguistique pour des usages spécifiques et la formation linguistique des immigrants.
- L'utilisation des langues française et basque sur les inforoutes.

Ils ont exprimé également leur volonté que des échanges d'information s'effectuent régulièrement entre les différentes équipes gouvernementales concernées par la question linguistique.

Les Parties s'entendent pour que cette coopération se développe graduellement, en fonction des ressources disponibles de part et d'autre, par le biais d'un programme d'activités défini annuellement.

C'est ainsi qu'un premier programme d'activité en trois points a été établi pour l'année 2000, lors de la rencontre entre les Parties à l'occasion de la visite officielle à Québec, le 17 novembre, de la ministre de la Culture du gouvernement de la Communauté autonome du Pays Basque, Mme Mari Karmen Garmendia.

Bost arlootan, hizkuntza-gaietako lankidetzari ekiteko gogoa adierazi dute:

- Toponimia.
- Enpresetako lan-hizkuntzaren normalizazioa.
- Hizkuntza-plangintzaren azterketa erkatua.
- Terminologia.
- Erabilera berezietarako hizkuntza-prestakuntza eta inmigranteen hizkuntza-prestakuntza.
- Frantsesaren eta euskararen erabilera informazioaren gizartean.

Adierazi dute, halaber, hizkuntza-gaietan dihardutén bi gobernuetako lan-taldeek aldian-aldian informazioa elkartrukatzeko nahia.

Alderdi biek adostu dute lankidetza hori, alde batak zein besteak izan ditzaten baliabideen argitan, arian-arian eta urtez urte zehaztuko den ekintza-egitarauaren arabera gauzatzea.

Hori horrela, 2000. urterako hiru puntuko ekintza-egitaraua zehaztu dute hitzarmeneko bi alderdiek, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburu den M. Carmen Garmendia andreak azaroaren 17an Quebecera egindako bisita ofizialean.

Ce programme porte sur les activités de coopération suivantes:

- Un séminaire de formation en toponymie à réaliser au Pays Basque au printemps 2000 avec la collaboration de la Commission de toponymie du Québec.

  La Partie basque assumera l'ensemble des frais liés à l'organisation de ce séminaire comme les transports internationaux, les frais de séjour, les frais de traduction et d'interprète. Pour sa part, la Partie québécoise assurera la disponibilité des experts et la préparation du séminaire en accord avec les besoins exprimés par les partenaires basques.

- Un premier séminaire en normalisation de la langue de travail dans les entreprises à tenir au Québec au printemps 2000.

  La Partie basque assumera l'ensemble des frais de déplacement et de séjour de 4 à 5 spécialistes basques ainsi que les frais de traduction et d'interprète, si nécessaire. Pour sa part, la Partie québécoise assurera l'organisation de l'activité au Québec et la disponibilité des experts concernés.

- Un second séminaire de formation en normalisation de la langue de travail dans les entreprises à réaliser au Pays Basque à l'automne 2000 pour un auditoire plus élargi.

  La Partie basque assumera les frais de déplacement et de séjour des experts québécois ainsi que les coûts liés à l'organisation du séminaire de formation.

Egitarauak honako lankidetza-ekintzok ditu:

- Quebeceko Toponimia-Batzordearekin elkarlanean, datorren udaberrian, Euskal Herrian egingo den toponimiako prestakuntza-mintegia.

  Euskal Herriak bere gain hartuko ditu mintegi horren antolaketa-gastuak baita nazioarteko joan-etorrietakoak, egonaldietakoak, zein interpretaritza eta itzulpen gastuei dagozkienak ere. Quebectarrek, berriz, adituak jarriko dituzte eta, euskaldunek adierazitako beharren arabera moldatu edo egokituko dute mintegia.

- Enpresetako hizkuntza-normalizazioari buruzko mintegia egingo da Quebecen, 2000. urteko udaberrian.

  Euskal Herriak lauzpabost aditu euskaldunen joan-etorri gastuak hartuko ditu bere gain, bai eta, beharko balira, interpretaritza-gastuak ere. Quebeceko Gobernuak, bere aldetik, mintegiaren antolaketa zein behar diren adituen parte hartzea hartuko bere gain.

- Enpresetako lan-hizkuntza normalizatzeko bigarren mintegia Euskal Herrian egingo da, 2000. urteko udazkenean, parte hartzaile-kopuru handiago batez.

  Euskal Herriak bere gain hartuko ditu Quebeceko adituen joan-etorri eta egonaldi-gastuak bai eta prestakuntza-mintegiaren

Pour sa part, la Partie québécoise assurera la disponibilité des experts et la préparation du programme en accord avec les besoins exprimés par les partenaires basques.

antolaketakoak ere. Quebecek, ostera, behar diren adituak jarriko ditu eta mintegiaren egitaraua Euskal Herriko ordezkariek esanikoaren arabera egokituko du.

Les Parties souhaitent également favoriser dans les limites de leur compétence le développement de liens d'amitié et une meilleure compréhension des réalités politiques et sociales de leur société respective.

Era berean, alderdi biek, dituzten eskumenen esparruan, bakoitzaren gizarteko errealitate politiko eta sozialak gero eta hobeto ezagutarazi eta elkarren arteko adiskidetasuna garatu nahi dituzte.

Les Parties reconnaissent la nécessité de maintenir un contact continu pour assurer la réalisation efficace des activités déjà établies et le développement d'une coopération d'intérêt mutuel.

Alderdi biek aitortu dute beharrezkoa dela bien arteko etengabeko harremana, jadanik abian dituzten ekimenak bermatzeko eta bien intereseko lankidetza garatzeko.

Fait à Bilbao ce 3e jour de décembre 1999, le Jour Internationale de l'Euskara, en double exemplaire en langue française et basque, les textes faisant également foi.

Bilbaon, 1999ko abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean egina, frantsesez eta euskaraz, ele bietan, biak ere balio berekoak izanik.

Jean-Claude Corbeil
Sous-ministre à la politique
Linguistique du Gouvernement du Québec

M. Josune Ariztondo Akarregi
Sous-ministre de la politique linguistique du
Gouvernement Basque

Jean Claude Corbeil
Quebeceko Gobernuaren Hizkuntza
Politikarako sailburuordea

M. Josune Ariztondo Akarregi
Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza
Politikarako sailburuordea